ARAUDIA

-EUS-

1. Data eta lekua Zegama-Aizkorri KB 2022ko **maiatzaren 27an ospatuko da**, irteera arratsaldeko **16:00-etan** izango delarik.

2. Ibilbidea Proba, Zegamako trenaren apeaderoa, baina km 1 lehenago dagoen bidegurutzetik, irten, eta Arriaundi gainera igoko da. **5.200** metroko luzera du eta **1015** metroko desnibel positiboa izango du.

3. Partehartzea 18 urtetik gorako atleta, mendizale eta kirolari guztiek dute proban parte hartzeko aukera arautegi honetan adierazitako guztia onartu eta zehaztutako baldintza guztiak betetzen badituzte behintzat. Gehienez, **250 lagun onartuko dira.**

4. Mailak (proba ospatzen den egunean duten adina)

Gizonezkoen maila
18 urtetatik gorakoak.

Emakumezkoen maila:
18 urtetatik gorakoak

5. Izen-ematea eta zozketa Gehienez 250 korrikalarik parte hartu ahal izango dute. **Aurre-inskripziorik ez da egingo 2022an.** 2020ean zozketaz eta denboraz banatutako izen emateak errespetatuko dira.
Maila honetako frogek dakartzaten hainbat konpromiso kontuan izanik, antolakuntzak **50 dortsal** erreserbatuko ditu konpromiso horiei erantzuteko.
Bestalde, azken edizioan denborarik onenak lortu dituzten korrikalarien presentzia bermatzeko, antolakuntzak **beste 50 dortsal erreserbatuko** ditu korrikalari hauentzat.
Geratzen diren dortsalak **(150) zozketatu egingo dira**.
Aurrez aipatu bezala, dortsala lortzen duen korrikalaria ez da zozketa prozesuan sartuko.
Lehenengo aldiz zozketan parte hartzen duten korrikalariek, zozketarako zenbaki bakar bat izango dute.
Aurreko urteetan zozketan parte hartu eta dortsalik suertatu ez zaion korrikalariari, zenbaki bat gehiago gehituko zaie, zozketan parte hartu eta dortsalik izan ez duten urte bakoitzeko. Korrikalariren bati dortsala suertatu

bazaio aurreko urteren batean, hurrengo urteetako zozketak bakarrik hartuko dira kontutan.

6. Prezioa

Kuota **25€koa** izango da. Zenbateko honek zera bermatzen dute: proban parte hartzeko eskubidea, erantzukizun zibileko asegurua eta ezbeharretakoa, antolakuntzak parte-hartzaileentzako atondutako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea, oroigarri moduko elastikoa eta antolakuntzak probarako lor ditzakeen sarien zozketan parte hartzeko aukera.

7. Seinaleztapena

Ibilbidea behar bezala **seinaleztatuta egongo da**, kartel adierazleekin eta balizaje zintekin.

8. Hornidura

Postu bat atonduko da helmugakoaz gain.

9. Sariak

Gizonezko Absolutoak:

1. Txapela, Garaikurra eta 500€ eskudirutan

2. Garaikurra eta 300€ eskudirutan.

3. Garaikurra eta 150€

Emakumezko Absolutoak:

1. Txapela, Garaikurra eta 500€ eskudirutan.

2. Garaikurra eta 300€ko eskudirutan

3. Garaikurra eta 150€ eskudirutan

10. Dortsalen banaketa

Dortsalak udaletxeko arkupeetan banatuko dira, **2022ko maiatzaren 27an, eguerdiko 13etatik 16rak bitartean.**

11. Ingurumena

Lasterketa, bere zatirik handienean, edertasun natural handiko parajeetatik igarotzen da eta, hau horrela, ingurunea ahal beste zaintzeko eta zaborrak kontrol-guneetatik kanpora ez botatzeko eskatuko zaie partehartzaile guztiei.

ARAUDIA

	Oinarri-oinarrizko arau hau betetzen ez duen korrikalari oro probatik kanpora utzi ahal izango da.
12. Osasun-Laguntza	Antolakuntzak sorospen- eta salbamendu-zerbitzuak atonduko ditu. Era berean masaje-zerbitzuak, dutxak, komuna eta aparteko beharren bat duten edota ondoezak jota iristen diren kirolariei aurreneko laguntza emango dieten medikuak ere izango dira helmugan.
13. Segurtasuna	Antolakuntzak, aurretik Lasterketako Batzordearekin hala adostuz gero, proba ordezko ibilbidetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko eta, eguraldiak hala eskatzen badu, KB-a bertan behera uzteko eskubide osoa izango du.
14. Laguntza ezbeharretan	Parte-hartzaileek betekizun izango dute istripuren bat izan duen edonor laguntzea eta kontrol-guneetan edozein ezbeharren berri ematea.
15. Erantzunkizuna	Antolakuntzak erantzukizun oro ukatuko du istripuren bat gertatuz gero edota zabarkeriaz jokatzen bada; eta baita parte-hartzaileen objetu pertsonalei dagokienean ere, xede horrekin kontsigna-zerbitzu bat izango baita dortsalak jasoko diren tokian bertan. Horrela bada, **parte-hartzaileek izango dute** euren buruari edota hirugarren pertsonei eragindako kalte ororen erantzukizuna.
16. EMF-ren araudia	**EMF**-ren KB-etako araudia bete beharko da froga honetan.